



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza Osoak bi mila hogeita bateko maiatzaren lauan, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

UDALAREN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.

Udalaren Plan Estrategikoa onartzeari dagokionez, Udalburuak hitza hartu eta jakinarazi du azken zazpi hilabetetan udal-gobernua 2030 Plan Estrategikoa osatzeko lanean aritu dela. Planaren bidez, 2021. ekitaldi honetan herriko egoera orokorraren diagnostikoa zein den jakin da, eta baita datozen hamar urtetan nolako Azpeitia nahi eta irudikatuko den eta jomuga horretara iristeko, epe ertain eta luzera egin beharreko ibilbidea zein den. Hain zuzen hori da Plan Estrategikoaren helburua eta horretarako prozesua fase ezberdinetan eman da.

Denon arteko elkarlanetik abiatuta norabide komun bat izatea nahi izan da, eta helburua denon artean osatutako plana izatea da, etorkizuneko Azpeitia, modu kolektiboan definitzea eta diseinatzea baita lanketa guztia ardazten duen elementu egituratzailea. Prozesu honetan lehenik eta behin diagnostiko bat egin da. Horretarako herritarrei inkestak, aurretik egindako Plan Estrategikoaren datuak, estatistikako erakundeak emandakoak, eta sail ezberdinetako udal teknikarien ekarpenak kontuan izan dira. Diagnostikoa osatutakoan hurrengo pausoa Plan Estrategikoaren erronkak zehaztea izan da. Horretarako, arlo bakoitzean erreferente diren udalerriko agenteen, udal teknikarien eta udal gobernuko eta oposizioko ordezkarien ekarpenak kontuan izan dira, bai eta herritarren ekarpenak ere. Azken fase batean, Azpeitia 2030 Plan Estrategikoko ildo nagusiak findu dira, herrian landuko diren ildo estrategikoak zeintzuk diren zehaztuz.

Plan Estrategikoak bederatzi lan eremu edo ildo zehaztu ditu datozen hamar urteetarako, eta arlo horietan guztietan hainbat helburu adostu dira. Ekonomia, gizarte zerbitzuak, parekidetasuna, hezkuntza euskara, kultura kirola, etxebizitza eta ingurumena eta klima aldaketa esparruetan 36 erronka zehaztu dira azpeitiarren bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Indar berezia jarri da ekonomian eta gizarte zerbitzuetan, eta horiek izango dira 2030. urtea bitartean udalak izango dituen lehentasun nagusiak.

EAJ taldeko Amaia Etxeberria ados azaldu da proposamenarekin.

Eta kontuan izanik Udalaren Ekonomia Batzordeak emandako aldeko irizpena, Udalbatza Osoak AHO BATEZ eta beti ere legezko kopuruaren

gehiengo osoaren aldeko botoarekin Azpeitia denontzat lemapean -Azpeitia 2030 Plan Estrategikoa- dokumentua onartu du.

*Dokumentu hori behar bezala diligentziatua espedienteen jaso da, eta Udalaren web orrian argitaratuko da.

Eta horrela jaso gera dadin eta, alkatearen on iritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita bateko maiatzaren hogeita batean

O.E.
ALKATEA,

